

2007-2011 BOSTURTEKO KUPOA ZEHAZTEKO LEGEA

I. KAPITULUA

Metodologiaren araubide juridikoa eta indarraldia

1. artikulua.- *Metodologiaren araubide juridikoa eta indarraldia.*

Datozen artikuluetan arauturiko metodologiaren bidez zehaztu behar dira 2007-2011 urteetako, biak barne, Euskadiko kupoak. Hain zuzen, metodologia honek 12/2002 lege bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko II. kapituluko 2. artikuluan zehaztutako arauak jasotzen ditu.

2. artikulua.- *Sistema.*

Aurreko artikuluan xedaturikoa betetzearren, bosturteko horretako abiaburu-urteko kupo likidoa zehaztuko dugu, eta, hurrengo urteetarako, kupo hori eguneratzea izango da egin beharrekoa.

II. KAPITULUA

Abiaburu-urteko kupo likidoa zehazteko modua.

3. artikulua. *Abiaburu-urteko kupo zehazteko modua.*

2007-2011 bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa honela kalkulatu da: autonomia-erkidegoak bereganatu ez dituen kargen zenbateko osoari egozpen-indizea aplikatuko zaio, eta ondoren dagozkion egokitzapenak eta konpentsazioak egingo dira; hori guztia ondoko artikuluetan ezarritako baldintzetan.

4. artikulua. *Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargak.*

Bat. Autonomia erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargak dira, hain zuzen, Autonomia erkidegoaren esku benetan geratu ez diren eskumenei dagozkien horietan.

Bi. Karga horien zenbateko osoa zehazteko, Estatuaren aurrekontuaren gastu guztiari honako kenketa hau aplikatu behar zaio: autonomia-erkidegoak, estatu-mailan, bereganatu dituen eskumenei dagokien aurrekontuaren diru-izendapen osoa, errege-dekretuetan ezarritako eskualdatze-egunetik aurrera.

Hiru. Besteak beste, autonomia-erkidegoak bereganatu ez dituen kargak dira ondoko hauek:

- a) Estatuaren Aurrekontu Orokorretan Lurraldearteko Konpentsazio Fondoei zuzendutako diru-kopuruak.
- b) Estatuak herri-erakundeei ematen dizkien transferentziak edo dirulaguntzak, baldin eta erakunde horiek dituzten eskumenak ez baditu Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu.

c) Estatuaren zorren interesak eta amortizazio-kuotak.

Lau. Lurralde historikoei bereganatu gabeko kargei dagokien zatia egozteko, 7. artikuluan aipatzen den egozpen-indizea aplikatuko da.

5. artikulua. *Egokitzapenak.*

Bat. 14 eta 15. artikuluetan ezarritakoa bete egin behar bada ere, aurreko artikuluko laugarren zenbakian aipatzen den egoztearen ondoriozko zenbatekoak egokitu egingo dira, Euskadiri eta Estatuari egotz dakizkiekeen zuzeneko zergak direla-eta lortzen diren diru-sarreraren estimazioa hobetzearen, Ituneko 55. artikuluan jartzen duenaren arabera.

Bi. Aurreko bat puntuan azalduko egokitzapenak ematen dituen zenbatekoak izango dira lurralde historiko bakoitzaren kupoa.

6. artikulua. *Konpentsazioak*

Bat. Lurralde historiko bakoitzaren kupertik hurrengo kopuru hauek kenduko dira konpentsazio bidez:

a) Itundu gabeko tributuetatik lurralde historikoei egotz dakiekeen zatia.

b) Tributu-izaera ez duten aurrekontuen diru-sarreratik egotz daitekeen zatia.

c) Estatuaren aurrekontu orokorren defizitetik egotz dakiekeen zatia.

Bi. Osasun-kontuetan eta Gizarte Segurantzako gizarte-zerbitzuetan Euskadiri transferitutako zeregin eta zerbitzuak finantzatzeko diru-sarreretatik Euskadiri egotzi beharreko zatia ere lurralde historiko bakoitzeko kupoan konpentsatuko da, aurrekontu-araubidean jartzen duena bete beharrez. Araubide hori honako errege-dekretu hauetan dago arauturik: azaroaren 6ko 1536/1987, urriaren 2ko 1476/1987, abuztuaren 23ko 1946/1996 eta apirilaren 2ko 558/1998 Errege Dekretuetan. Lege hau indarrean jarri aurretik, Gizarte Segurantzaren diruzaintza orokorraren transferentzien bidez ordaintzen zizkieten Euskadiri kopuru horiek.

Hiru. Aurreko puntuetan adierazitako kopuruak 7. artikuluan ezarritako indizea aplikatuz egotziko dira.

7. artikulua. *Egozpen-indizea.*

4. eta 6. artikuluetan aipatzen den egozpen-indizea, funtsean, lurralde historikoei Estatuaren aldean duten errentaren arabera zehaztu da, eta % 6,24koa izango da bosturteko honetarako.

8. artikulua. *Kupo likidoa.*

5. artikuluko doiketak eta 6. artikuluko lehen puntuan arauturiko konpentsazioak egin eta gero ateratzen den kopurua izango da, zehazki, Euskadik 2007. ekitaldian eman beharreko kupo likidoa. 2007a izango da bosturtekoaren abiaburu-urtea.

Behin kupo likido hori zehazturik, aurreko 6.bi artikuluko konpentsazioaren hainbestekoa kendu beharko zaio, baita Ekonomia Ituneko laugarren xedapen iragankorra aplikatzeak dakarren kopurua ere.

III. KAPITULUA

Bosturtekoaren hurrengo urteetako kupo likidoa zehazteko modua eta kupoen behin betiko kitapena.

9. artikulua. *Zehazteko metodoa.*

Abiaburu-urtearen ondoren datozen lau urteei dagokien kupo likidoa kalkulatzeko, behin-behingo kalkulatzeke, kontzeptu horri eguneratze-indize bat aplikatuko zaio.

Lege honetako 6.bi artikuluko konpentsazioa dela-eta, halaber, gauza bera egingo da abiaburukoaz hurrengo urteetarako.

10. artikulua. *Eguneratze-indizea.*

Eguneratze-indizea zatiketa bat eginez lortzen da. Zatikizuna: kupo likidoaren ekitaldiko Estatuaren Diru-sarreraren Aurrekontuaren I. eta II. atalburuetan agertzen diren itundutako tributuetatik datozen diru-sarreraren aurreikuspena, autonomia-erkidegoen erabat esku uzteko tributuetatik datozenak salbu. Zatikizuna: Estatuak bosturtekoaren abiaburu-urterako aurreikusita dituen diru-sarrerak, tributuko-kontzeptu berberak direla-eta.

11. artikulua. *Bereganaturiko eskumenak aldatzearen ondorioak.*

Bat. Bosturtekoaren barruan, edozein urtetan, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen berriak beregain hartzen baditu, eta eskumen horien estatu-mailako urteko kostua Estatuaren kargen barruan kontuan hartu bazen bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo, 8. artikuluan esaten dena, zehazterakoan; orduan, eskumen-aldatzearen kostu osoa kalkulatu beharko da, estatu-mailan eta urtean, Estatuaren ekitaldi horretako Aurrekontu Orokorren arabera.

Eskualdatze berria indarrean jartzeko eguna ekitaldiko urtarilaren 1a ez bada, hainbanatu egin beharko da; hartara, eskualdatzearen estatu-mailako urteko kostu osoa hartuko da kontuan, eta Euskadik eskumen berriak bereganatu dituen egunetik hasita kalkulatu da proportzioa. Kalkulu hori eskualdaketa gauzatu den ekitaldiko kupo zehazteko erabiliko da soilik.

Murrizketa proportzional horrek gastu arrunten benetako aldizkatasuna hartuko du kontuan, baita Estatuaren inbertsioen benetako gauzatze-maila ere.

Bi. Aurreko puntuan adierazitako kasua gertatuz gero, bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoari ondoko zatiketaren kopurua kenduko zaio: Zatikizuna: eskualdaketa garaiko ekitaldiko estatu-mailako urteko kostu osoa: zatitzailea: 10. artikuluan arautzen den eguneratze-indizea; zatidurari 7. artikulua ekoizpen-indizea kenduko zaio.

Bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likido berria, berraztertu ondorengo, eskualdaketaren ekitaldiko eta hurrengo ekitaldietako kupoa zehazteko erabiliko da.

Hiru. Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatuta zeukan eskumenen bat utziko balu, azalduriko prozedura bera jarraituko litzateke, baina alderantziz.

Lau. Datozen bost urteetan, neurri legegile berriak, interes orokorreko erabakiak edota Autonomi Erkidegoei exekutatzea dagokien erakunde arteko akordioak direla-eta, Estatuak finantzazio konpromiso berriak hartuko balitu, Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak Euskadiren finantzazioaren parte hartzea aztertu eta zehaztuko luke.

12. artikulua. *Behin betiko kitapena.*

Bat. Aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera finkaturiko behin-behineko kupoak behin betiko kitatzeko, honela egin behar da: Estatuak, bai kupoaren ekitaldian, bai bosturtekoaren abiaburu-urtean, benetan lortu duen diru-bilketa likidoari 10. artikuluan azalduriko eguneratze-indizea ezarriz ateratzen den benetako balioa ezarriko zaio abiaburu-urteko behin betiko kupo likidoari.

Lege honetako 6.Bi artikuluan ezarritako konpentsazioa behin betiko kitatzeko ere hori bera egingo da.

Bi. Salbuespenez, bosturtekoaren abiaburu-urteari dagokion kupo likidoa behin betiko kitatzeko, honela egin behar da: Estatuak bosturtekoaren abiaburu-urtean benetan lortu duen diru-bilketa likidoari 10. artikuluan azalduriko benetako eguneratze-indizea aplikatuz ateratzen den benetako balioa alderatuko da Estatuko Diru-sarreraren Aurrekontuan ekitaldi berean agertzen den diru-bilketaren aurreikuspenarekin.

Lege honetako 6.bi artikuluko konpentsazioko bosturtekoaren abiaburu-urteari dagokion behin betiko kitapena egiteko ere horixe bera egingo da.

Hiru. Estatuak ekitaldi bakoitzean lortzen duen diru-bilketa hauxe izango da: Estatuko Administrazioako Kontuhartzailtza Nagusiak berariaz emandako egiaztagirian agertzen dena. Diru-bilketa egiaztagirian aipatzen den urteari dagokio, sortzapen-urtea edozein izanda ere.

Lau. Kupo likidoaren ekitaldiaren hurrengo maiatzean egingo da behin betiko kitapena. Behin-behingo finkatu ziren kupo likidoarekin eta konpentsazioarekin sorturiko diferentziak maiatzean bertan erregularizatuko dira, eta hurrengo atalean aurreikusita dagoen diru-sarrerarekin batera zenbatuko dira, aipaturiko hilabetean.

IV. KAPITULUA

Arau komunak

13. atala.- *Kupoa ingesatzea*

Bat. Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi bakoitzean jarri behar duen zenbatekoa hiru zati berdinetan abonatu dio Estatuko Herri Ogasunari, ekitaldi bakoitzeko maiatzean, irailean eta abenduan, alegia.

14. artikulua. *Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta egin beharreko egokitzapena.*

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta Euskadin benetan biltzen denari honako kopuru hauek gehituko zaizkio:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta aduanetan bildutakoaren % 6,875.

b) Baldin eta Euskadiko diru-bilketa % 5,765 handiagoa bada Estatuak, aduanak kenduta, egiten duen guztirakoa baino: Lurralde komunaren benetako diru-bilketaren % 1,110 zati % 94,235; eta portzentaje hori baino txikiagoa bada: Euskadiko benetako diru-bilketaren % 1,110 zati % 5,765.

Bi. Aurreko egokitzapenaren behin-behineko egozpena, eta hurrengo ekitaldiko behin betirako erregularizazioa Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak onartu eta indarrean dagoen prozedurari jarraiki egingo da.

15. artikulua. *Fabrikazio-zerga bereziak direla-eta egin beharreko egokitzapena.*

Bat. Fabrikazio Zerga Bereziak direla-eta (Alkohola eta Alkoholetik datozen Edarietak, Tarteko Produktuak, Garagardoarena, Hidrokarburoenak eta Tabakoarena) Euskadin benetan biltzen denari, honako kopuru hauek gehituko zaizkio:

a) 1. Alkohola, Alkoholetik datozen Edariak eta Tarteko Produktuak direla-eta aduanetan bildutakoaren % 7,130.

2. Euskadiko diru-bilketa Estatuak, Aduanak kenduta, egiten duen guztirakoa baino % 1,932 handiagoa bada: Lurralde komunean Alkohola, Alkoholetik datozen Edariak eta Tarteko Produktuak direla-eta benetan bildutakoaren % 5,198 zati % 98,068; eta portzentaje hori baino txikiagoa bada: zerga berberak direla-eta Euskadin benetan bildutakoaren % 5,198 zati % 1,932.

b) 1. Garagardoaren zerga dela-eta aduanetan bildutakoaren % 7,130.

2. Euskadiko diru-bilketa Estatuak, aduanak kenduta, egiten duen guztirakoa baino % 1,731 handiagoa bada: garagardoaren zerga dela-eta lurralde komunean benetan bildutakoaren % 5,399 zati % 98,269; eta txikiagoa bada: Euskadin kontzeptu beragatik benetan bildu denaren % 5,399 zati % 1,731.

c) 1. Hidrokarburoen zerga dela-eta aduanetan bildutakoaren % 6,560.

2. Zeinu negatiboa duela, Euskadiko diru-bilketa % 8,260 aldiz handiagoa bada Estatuak, aduanak kenduta, egin duen guztirakoa baino: Hidrokarburoen Zerga dela bide lurralde komunean benetan bildutakoaren % 1,700 zati % 91,740; eta portzentaje hori baino txikiagoa bada: Euskadin, kontzeptu beragatik, benetan bildutakoaren % 1,700 zati % 8,260.

d) Honako kendura hau: Kenkizuna: Tabakoaren Zerga Berezia dela-eta lurralde komunean benetan bildutakoa bider Euskadiko Tabako eta Tinbre Saltokiei bidalitako tabakoen balioaren

urteko portzentajea. Kentzailea: bat minus esandako portzentajea, eta ateratzen dena bider Euskadiko benetako diru-bilketa, kontzeptu beragatik.

Bi. Euskadik lorturiko benetako diru-bilketa eta Estatuak, kontzeptu berengatik, bildu duenari atal honen Bat puntuko a)2, b)2 eta c)2 pasarteen azken lerroetako indizeak aplikatuz lortzen den emaitzarekiko aldea % 7 baino handiagoa bada Hidrokarburoen Zergaren kasuan, eta aldea % 10 baino handiagoa bada Alkohol eta Alkoholetik datozen Edarien, Tarteko Produktuen eta Garagardoaren Zergen kasuan, aipaturiko indizeak zuzenduko dira diferentziak agertzen dituzten urteetan egokitzapenak egitearren.

Zuzenketa hori honela gauzatu da: aurreko pasarteetan zehazturiko mugak gainditzen dituen aldakuntza-portzentajea, positibo zein negatiboa, aplikatuko zaie Bat puntuko a)2, b)2 eta letren azken lerroetan adierazitako indizeei.

Hiru. Aurreko egokitzapenaren zerga bakoitzerako behin-behineko egozpena, eta hurrengo ekitaldiko behin betirako erregularizazioa Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak onartu eta indarrean dagoen prozedurari jarraiki egingo da.

Xedapen Gehigarriak. Lehenengoa

2007-2011 bosturtekorako, abuztuaren 4ko 37/1997 Legeko lehen xedapen gehigarrian jartzen duenak jarraituko du indarrean.

Bigarren xedapen gehigarria.

Onartu da, honenbestez, Euskadirako 2007-2011 bosturteko horretako abiaburu-urteko behin-behineko kupo likidoa. Metodologia honen I. eranskinean dago jasota.

Hirugarren xedapen gehigarria.

Autonomia pertsonalaren eta Mendetasun-egoeran daudenen Zaintzarako Sistema egituratzeko beharrezko xedapen finantzarioak Euskadin nola aplikatuko diren zehazteko, Hezkuntzako Lege Organikoa nola garatu erabakitzeko eta osasun-arloa diruz laguntzeko helburuz, 2005eko irailaren 10ean bildu zen Presidentearen Konferentzian adostutako xedapenak nola garatu erabakitzeko, horretarako guztirako, Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordean hartutako akordioak aplikatuko da.

Laugarren xedapen gehigarria.

Estatuko zerga-araubidean aldaketarik gertatzen bada eta aldaketa horrek zergen inguruko itunekin zerikusia badu, araugintzako aginpideen banaketa aldatu egiten bada eta aldaketa horrek zeharkako ezarpenari ere eragiten badio, edo zerga edo konturako ordainketa berririk sortzen bada, orduan administrazio biek adostasunez bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa eta eguneratze-indizea berraztertuko dituzte egoki den moldez eta kopuruz, eta aldaketa gertatzen den urtetik aurrera jarriko da indarrean.

Beharrezkoa bada, eta dena delako zerga kontzertatua nolakoa den ikusirik, bi administrazioek zerga horretarako moduko hainbat egokitzapen edo konpentsazio ezartzea erabakiko dute.

Bosgarren xedapen gehigarria.

Estatuaren eta gainontzeko erakundeen arteko zerga erregimenaren inguruko eskualdaketarik emanez gero edo Autonomia Erkidegoen edo Tokiko Erakundeen finantzazio sistema erreforma baten ondorioz Estatuaren Aurrekontu orokorretan aldaketarik egongo balitz, Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak, behar izanez gero, aztertu eta zehaztu egingo du abiaburu den urtearen Kupo likidoa berritzea edota dagokion eguneratze-indizea. Erreforma izan eta urtebetera izango ditu, izatekotan, ondorioak berraztertze horrek.

Seigarren xedapen gehigarria.

Tabakoa egin eta merkaturatzeko gaur egun indarrean dagoen erregimena aldatu egiten bada, bi administrazioek, ados jarrita, 15. artikuluko Bat puntuko d) letra egokitu egingo dute.

Zazpigarren xedapen gehigarria.

Eranskinean Ertzaintzarako jasotako kopurua administrazio egoeraz zerbitzu aktiboan dagoen ertzain-kopuruari dagokion finantzazioa erakusten du. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehenago hartutako hedaketa-akordioetatik dator finantzazio hori.

Ertzaintzak gaur egun daukan plantilla handitu egiten bada, handitze hori finantzatzea erabakiko du Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak.

Xedapen iragankor bakarra.

2007ko ekitaldian, salbuespenez, igo egingo da aldi bateko kupoaren zenbatekoa. Hain justu, Ertzaintzako 20. promozioko langileek prestakuntzan jardun duten urte zatiari dagokion heinean igo ere, hala agintzen baitute gai honen inguruan Ekonomia Ituneko Bitariko Batzordeak hartutako akordioek.

Lehenengo azken xedapena.

Salbuespenez, Lege honen indarraldia amaitu eta gero, hurrengo ekitaldietarako kupoa ezartzeko metodologia berririk oraindik aldarrikatu ez bada, Lege honetako metodologia hau berau aplikatuko

da oso-osorik kupo likidoen zenbatekoa eta konpentsazioak (6.bi artikulua eta metodologia honetako lehen xedapen gehigarriak eta Ekonomia Itunaren laugarren xedapen iraunkorrek adierazitakoak) aldi baterako zehazteko 2012. urteko eta hurrengo ekitaldietan.

Nolanahi, aldi baterako kupo eta konpentsazio horiek ordeztu egingo dira gerora, arautzen dituen legea (aurreko paragrafoan aipatzen dena) aplikatuta ateratzen diren kupo eta konpentsazioen bidez, legea onesten denetik aurrera.

Azken xedapenetako bigarrena.

Euskadiren Ekonomia Itunaren xedapen gehigarriek, iraunkorrek eta azkenek indarrean eta erabilgarri diraute bakoitzak bere esparruan, eta metodologia honetan ezarritakoa ez doa haien kaltetan.

1. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko aldi baterako kupoak, 2007ko abiaburu-urterako

	<u>Mila eurotan</u>	<u>Mila eurotan</u>
Estatuaren aurrekontuak Gastuak	–	188.417.352,98
Autonomia Erkidegoak bere gain hartutako kargak (1)	–	102.664.732,79
Bere gain hartu EZ dituen kargak, guztira	–	85.752.620,19
Bereganatu gabeko kargei egotzi beharreko indizea	–	–
85.752.620,63 kopuruaren % 6,24	–	5.350.963,50
Kompentsazioak eta kendu beharreko doikuntzak:	–	–3.702.794,41
Zerga itundu gabeak (3.942.605,41 kopuruaren % 6,24)	–246.018,58	–
Zergak ez diren beste diru-sarrerak (7.589.293,77 kopuruaren % 6,24)	–473.571,93	–
Aurrekontuaren defizita (40.872.263,17 kopuruaren % 6,24)	–2.550.429,22	–
Zuzeneko zerga itunduak	–432.774,68	–
Kupo likidoa	–	1.648.169,09
Kupoaren Legearen 6. artikulua xedatutako konpentsazioak	–	–82.088,07
Kupoaren Legearen xedapen iragankor bakarra	–	2.980,31
Kompentsazioak Araban:	–	<u>–3.823,80</u>
Ordaindu beharreko likidoa	–	1.565.237,53

(1) Zenbateko honetan sartuta dago, bereganatutako karga moduan, 10.189.126 mila euroko zenbatekoa ere, estatu mailan Ertzaintzaren balorazioari dagokiona.

2007-2011ko Kupoaren Metodologiako hirugarren xedapen gehigarriak agintzen duenari eragin gabe.